

...eta

Kittó!

839 zkio.
2013-III-8



Txikitotik Erre- HEMENDIK HILABETE BATERA balera

EUKi

ARTEKARITZA

Toribio Etxebarria, 1 - behea
943 20 42 99

AUTOAREN ASEGURUA
preziorik onenean



ZINEMAKO IRRIBARREAK

Zure ametsak egi bihurtzen ditugu



ODONTOLOGIA OROKORRA

ORTODONTZIA

Invisalign < BERRITASUNA

Ezkutuko mihi-ortodontzia ikusezina < BERRITASUNA

Zeramika eta zirkoniozko bracket oso estetikoak < BERRITASUNA

PERIODONTZIA

Diagnosi digital periodontala < BERRITASUNA

Analisi mikrobiologiko periodontal eta genetikoak < BERRITASUNA

Periodontitis-tratamendua kirurgiarik gabe < BERRITASUNA

LASER diodoa

Mentuak hortzoietan

AHO-KIRURGIA

Ateratze zailak eta sustrai-hondarrak

Azkenaginak ateratzea kirurgiarekin

Barneko hortzak ateratzea

INPLANTOLOGIA

Hezur eta hortzoi gabeziarentzako tratamenduak

Hezur-birsortzea biomaterial bidez < BERRITASUNA

Hortzoi-birsortzea

Inplantologia transzigomatikoa < BERRITASUNA

Hortz finkoak egunean bertan inplanteekin < BERRITASUNA

PROTESI FINKOAK

Metalezko koroa libreak < BERRITASUNA

Zirkoniozko koroa puruak < BERRITASUNA

CAD-CAM koroak (ordenagailuz egindakoak) < BERRITASUNA

Karillak

MUGITU DAITEZKEEN PROTESIAK

Oklusioa eta ATM

OKLUSIOAREN DIAGNOSI DIGITALA < BERRITASUNA

ZURIKETA LASER bidez saio bakarrean < BERRITASUNA

ODONTOPEDIATRIA (PADI)

ERRADIOLOGIA DIGITALA

SUDUR-LASAIGARRIA < BERRITASUNA

MUTUA ETA ASEGURUAK

GLOBAL CARD, EMESA PREVENCIÓN, MUTUA UNIVERSAL, FRATERNIDAD, CARREFOUR LIFE, IMQ, AZKARAN, PREVISORA BILBAINA, SANTA LUCÍA, AEGÓN/STONEBRIDGE, OCASO, AVANTSALUD, PADI...

ZERBITZU BERRIAK

ETENGABEKO ORDUTEGIA

Astelehenetik ostiralera:

08:00etatik **22:00**etara

zapatuetan:

10:00etatik **14:00**etara

LARRIALDIETARAKO TELEFONO BIDEZKO ARRETA

24 orduz
GALDETU



GALDETU

2. mediku-iritzia

Unibertsitate entzutetsuetan irakasleak gara.

Ospea duen zentroa gara.

ETXEZ-ETXEKO ARRETA-ZERBITZUA



Etxeko arreta:

Pazientea jaso eta etxera itzuli

GALDETU



IRAZABAL

clínica dental

Julián Etxeberria, Nº 12 - 1º - 20600 EIBAR

Tel.: 943 20 85 52 - www.clinicairazabal.com

Promozio bereziak 2013ko martxoaren 15era arte, kupoi hau aurkeztuz

%20 Deskontua hortz-inplanteetan*

*Soilik hortz-inplanteetarako

%10 Deskontua larunbatetan egindako tratamenduetan

LASER bidezko zuriketa
Hortzetarako arkatx zuritzailea
Higienea **525 €**
BESTELAKO PROMOZIOAK: **GALDETU**

ASTEAN ESANAK

"Baserritarrak morroi jotzen du bere burua, nahiz eta nagusia izan; kaletarrentzat, berriz, sekulako pagotxa da baserria, asko balio duen ondasuna. Kaleko senideak bere partea dela-eta, dirutza eskatu dezake"

(MANU BARRENETXEA, ABOKATUA)

"Munduko barne-produktu gordina 75 bilioi dolarrekoa da eta fortuna globalak hori hirukoizten dute, 200 bilioi dolar inguru. Hortik laurdena, 50 bilioi bueltan, paradisu fiskaletan daude. Suitza, herenarekin, da horietatik handiena"

(CHRISTIAN FELBER, EKONOMILARIA)

"Alemaniak, Europako ekonomia nagusiak, diru asko eman zion Espainiari BMW-ak erosteko. Hori ez dago ondo. Alemania bitan ahalegindu zen Europa militarki inbaditzen eta kale egin zuen. Orain ekonomikoki dihardu"

(JEREMY IRONS, AKTOREA)

"18-34 urte bitarteko gazteen artean beste adin taldeetan baino gehiago egin du behera abortuaren aldeko jarrerak. Zergatia? Sinplea da: gaur egun amaren barruan dagoen umea ikusi egiten dugu ekografiei esker"

(JORGE ENRIQUE MUJICA, KAZETARIA)

Gure aurrekoek erabiltzen zuten euskerara

JAN-ERANIAN.- Jan eta edan ibili. "Jan-eranian ta umore onian parerik bakua".

JAN-JAN.- Asko, neurririk gabe jan. "Eguardixan, jan-jan babak eta kitto egun guztirako".

JANGARKA.- Jateko gogorik ez duena, jaten mizkina dena. "Gure txarria jatuna izan da gero!, baiña etxekonekua aurten jangarkia".

JANGARTXU.- Jateko gogorik gabekoa, mizkina. "Ez da harrizkua ezpala baiña argalagua egotia: beti izan da jangartxua".

eskutitzak

- FELIX BERGARARI -

Felix Bergara Azitaingo parrokuaren heriotza dala eta, Arrate Kultur Elkarteak adiskide eta lagunei nahigabia aitzen emotiaz

gain, alkartiaren alde egindako lan isil bezain ugarixa eskertu nahi gentzake, konturatzen garran arren, ohar honek ezin dabe-

la iñola be, haren lan guztia bihar dan beste goraittatu. Ez adiorik Felix.

ARRATE KULTUR ELKARTEA

- ZERGATIK MARTXOAREN 9-AN BILBORA? -

1- Aurreko esperientzetako balorazio baikorreen oinarrituta, LABeko eta beste sindikatueta-ko delegatuek enplegu galera gaiarekin edukitako eztabaidari irteera emateko proposamena delako. Borroka luze eta gogorretan murgilduta dauden delegatuak eta komiteak konbokatututako.

2- Alarma gorriaren egoeran gaude: enplegu suntsiketa izugarria da eta aurreikuspen guztiek argi laga dute goraka doala. Eszenatoki horretan, LAB prest dago siglen borrokak alboratu eta langileen mobilizazio zabal horren mesedetan lan egiteko.

3- Jendaratearen inplikazioa

beharrezkoa da, enpresa eremua gaintzen duen eta langile klase osoaren aurkako eraso honen aurrean. Logika guztia dauka, beraz, konfliktoak orokortzen diren momentuan ideia hauek komiteen eta delegatuen artean nagusitzea, jendaratearen borroketan inplikatututako nahi izatea, gazteak, pentsionistak, langabetuak... Guztien kontra datorren eraso denon artean geldituko dugu; baina gehituz, inondik inora banatuz.

4- LABek bai mobilizazioari, bai manifestuari ere, ez dio inondik inora ezetik esango, edukietan arazorik ikusten ez baitu. Hortik banaketa baino ez dator

eta hori da patronalarentzat eszenatokitik hoberena enplegu suntsiketarekin aurrera egiteko.

5- Krisiaren ia seigarren urtean gaudela eta enplegu suntsiketeta ikusita, oraindik ere enpleguaren aldeko mobilizazio nazionalik ez egotea LABek ez du positibotzat hartzen, kezkarri baizik. Horregatik guztiagatik, komiteek eta delegatuek planteatutako ekimen hau bultzatuko dugu eta langileak animatu nahi ditugu, desberdintasunen gainetik, komiteen arteko dinamika bultzatzera eta gehitzera lzapatuan Bilbon egingo den manifestaziora.

EIBARKO LAB SINDIKATUA



Euskara Elkarteak

ARGITARATZAILERA: ...eta kitto! Euskara Elkarteak. **HELBIDEA:** Urkizu, 11 - solairuartea. 20600 Eibar

TELEFONOAK: 943 20 67 76 / 943 20 09 18. **FAXA:** 943 20 28 72.

Astekararen E-MAILak: erredakzioa@etakitto.com / komunikabideak@etakitto.com /

publizitatea@etakitto.com **Elkarteen E-MAILak:** elkarteak@etakitto.com / normalizazioa@etakitto.com

ERREDAKZIO-KONTSEILUA: Itziar Albizu, Maider Aranberri, Jose Luis Gorostegi, Silbia Hernandez,

Koldo Mitxelena. **ADMINISTRAZIOA:** Marisol Uriarte. **KOORDINATZAILERA:** Koldo Mitxelena.

ERREDAKZIO-BURUA: Silbia Hernandez. **DISEINUA ETA MAKETAZIOA:** Jose Luis Gorostegi.

ARGAZKI ARLOA: Leire Iturbe eta S. Hernandez. **HIZKUNTZA ARDURA:** Juan Andres Argoitia eta Maider Aranberri.

PUBLIZITATERA: Itziar Albizu eta Belen Ulazia. **Tfnua:** 943 20 67 76. **AZALA:** J.L. Gorostegi

BANAKETA-ARDURADUNA: Ainhua Luz. **TIRADA:** 8.050 ale. **INPRIMATEGIA:** GERTU koop. (Oñati).

COPYRIGHT-A: ...eta kitto! **LEGE-GORDAILUA:** SS/430/92. **ISSN:** 1132 - 1679

("...eta kitto!" k ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik)



EIBARKO
UDALA



GIPUZKOAKO
FORU
ALDUNDIA



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
(HIZKUNTZA POLITIKARAKO
SAILBURUORDETZA)

kutxa gizarte ekintza



Eibarko Udalak, Gipuzkoako Foru Aldundiak,
Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak eta Kutxak
diruz lagundutako aldizkaria

Herri izaerako euskarazko hedabideen elkarte da Hekimen eta bertan batzen dira 50 hedabidetik gora, tartean ... eta kitto!. Alberto Barandiaran (Altsasu, 1964) da elkarte horretako zuzendaria. Euskaldunon Egunkaria-n eta Berria-n hogeitau urte lan egin zuen eta beste hainbat hedabidetan ere kolaboratu izan du.

ALBERTO BARANDIARAN (Hekimen)

"Euskarazko hedabideak estrategikotzat hartu behar ditu administrazioak"

- Kargua hartu berri, zein izan da zure lehenengo egitekoa?

Dena abian jartzea; izan ere, elkarte berria da, nahiz eta atzean gogoeta bat egon, bi urteko lana egon. Ideiak, erronkak, helburuak, argi samar daude, baina dena dago egiteko: elkarteko kideen arteko harremana, komunikazio publikoa, erakunde publikoekin lehen batzarrak...

- Iaz azaroan sortu eta agerraldi ofiziala egin zuen hedabideen aurrean Hekimenek. Orduan aipatu zenez, besteak beste, "egoera latzak" bultzatuta sortu zen Hekimen.

Egoera ez da ona, baina ez da beste eremu batzuetan bizi dena baino latzagoa. Denoi eragiten digun krisi ekonomikoaz gain, hedabideek ere bizi dute beren krisia. Kontsumo eredu aldaketak ekarri du krisi hori: Interneten kontsumitzeko joeragatik, inork ez du garbi ze toki hartuko duten etorkizun hurbil eta ertainean beren tokia ohiko hedabideek.

- Aintzat hartzen da jendartean, erakundetan, herri ekimeneko euskarazko hedabideen sektorea?

Jendartean aintzat hartzen da, ... eta kitto!, Goiena, Berria edo Argia ikusi besterik ez dago. Euskaldunok kontsumitzen ditugu euskarazko hedabideak. Erakundeek, bestetik, ahalegin bat egiten dute. Gureta-

ko garrantzitsua da, baina ez da nahikoa eta, besteak beste, horregatik sortu da Hekimen. Gure ustez, herri ekimeneko euskarazko hedabideak estrategikotzat hartu behar ditu administrazioak euskararen biziberritzearen ikuspegitik.

- Zeintzuk dira Hekimenean erronka nagusiak?

Lau erronka nagusi: batetik, elkarte bera egituratzea; bigarrena, dirulaguntza publikoak berraztertzea eta indartzea hitzarmen baterako aukera planteatuz, Jaurlaritzari eta diputazioei; hirugarren erronka, publizitate instituzionala handitzea. Horretaz gain, publizitate komertzialari dagokionez ere urratsak eman beharko dira. Azkeneko erronka da Hedabideen Behatokia sortzea.

- Ze espero duzue erakundearen aldetik?

Oraingoz, Gipuzkoako Diputazioarekin izan ditugu harremanak. Jarrera ona dago eta haiekin aztertu nahi dugu Gipuzkoako Diputazioaren publizitate instituzionala zelan bideratu. Gipuzkoako Batzar Nagusiek erabakita dute egiten den publizitate instituzionalaren %15 euskarazko hedabideetan egin behar dela. Hori betetzeko eskatzea da gure helburua. Eta administrazioaren mendeand dauden enprekin ere urratsak egitea. Jaurlaritzarekin aurki batzartuko gara, Patxi Baztarrika sailburuordearekin, ze urrats egin ditzakegun aztertzeko.



- Besteak beste, "euskararen hiztun komunitateak behar duen eremu komunikatibo sendoa" osatu eta garatzea nahi duzue...

Esparru komunikatiboaz dihardugunean esan nahi da hedabideek jendarte honetan izan behar duten eragina. Hedabide bakoitzak eman ditu urratsak bere esparrua osatzeko. Orain, gogoeta zabal eta orokorragoa egin behar da zehazteko euskarazko hedabideek ze toki, ze eragin, ze garrantzia izan behar duten Herri honetan. Zer eskatzen digu jendarteak? Zer ematen diogu? Zer eman beharko genioke? Zela egin genezake hori?... Nabarmendu nahi dugu euskarazko hedabideen garrantzia.

- Emankorra, ugaria da euskarazko hedabideen sektorea?

Bai, ez dago zalantzarik. Azken 30 urteotan, Argia-k, Euskaldunon Egunkaria-k edo Berria-k, Arrasate Press-ek, ... eta kitto!k eta gainerako tokiko hedabideek... oso bide emankorra egin dute. Baina, hori horrela izanda ere, egia da txikia eta ahula dela sektorea. Ezin dugu lehiatu maila berean erdarazko hedabideekin. Paradoxa hori gertatzen da: emankortasun horrek ez dio sendotasunik ematen. Hor dago erronka kontsumitzaileak gureganatzeko.

ELKARRIZKETA OSOA ETAKITTO.COM-en



ANDONI ARGOITIA URKIOLA

Familiaren izenean, eskerririk bereena gure nahigabeen lagundu diguzuen guztioi eta hileta-elizkizunera joan zinetenoi.



Flashmob-a Andren Eguna ospatzeko

Gaur Emakumiaren Eguna da-la ospatzeko hainbat jarduera berezi antolatu dittue herri-xan, tartian Bardintasun zerbitzuak preparatuko hōnetxek: goizian Untzagan karpa more-ak egon dira ipiñitta eta arratsaldian, 19.45xetan Udalaren hitzarmena irakorri eta gero, 100 bat lagun- parte-hartzia eukiko daben flashmob-a egingo da Untzagan. Ekitaldixa agurtzeko,



20.00etarako alkarretaratzia deittu dabe Untzagan bertan, "Andra, zure iritziak balio du, parte hartu!" goiburuari jarraituta.

Enpleguaren aldeko manifestaziñorako

Atzo goizian Debabarreneko hainbat enpresatako bihargiñen ordezkariak agerraldixa egiñ eben Kultun, bixar Bilbon enpleguaren defentsaren alde egingo dan manifestaziñuaren harira deialdixarekin bat egitten dabela azaldu eta bertan irakorri daben manifestuari atxikitutako enpresa batzordien barri emoteko (atzora bittartekuak): Rodisa, Norma-Cie, Alfa Tal-



dia, Alcorta Forging Group, Compresores ABC, RTS, Gorosabel, DMP, AGME, Spool Sistema, Autorreparaciones Deba, Mupena, Ascensores Beltran, Estampaciones Laga, Urrestarazu, Industrias FER, Etxepe, Alca, Alyco Tools eta Cometel.

Bixar Bilbon egingo dan manifestaziñua Jesusen Bihotzetik urtengo da 17.30xetan eta Eibartik bertara juateko autobusa antolatu dabe (Ego-Gaiñetik urtengo da 16.00etan). Izena emoteko tokiak Alfa enpresia eta Karrika, Depor eta Areto tabernak dira.

autuan

SANJUANETARAKO BILLERIA

2013ko San Juanak jaixetako programia preparatzen juateko billeria deittu dabe Udaleko kultura saillekuak: billeria astelehenian, hillaren 11n izango da Portalean (3. pisuan, ikastaro gelan), 19.00etan hasitta.

PAGATXAREN TERTULIXA

Martitzenian, hillaren 12xan, Pagatxa andrazkuen alkartiaren gaiñeko kafe-tertulixia egingo da Unzaga Plaza hotelian, 17.30xetan hasitta eta Ana Oiarzunek gidatuta.



NEGOBIDE

Datorren asteko eguenian, 13.45etatik aurrera NegoBide sareko beste topaketa bat antolatu dabe, Udalak lagunduta. Datorren asteko saiuan negozio bat aurrera etartzeko laguntza zihetzak identifikatzeko modu barrixak zeintzuk diran esplikauko dittue.

eitek
SOLUCIONES TECNOLÓGICAS

Marka onenetakoen Zerbitzu Tekniko onena

www.eitek.net

f
Funeuskadi Eibar
SERVICIOS FUNERARIOS

Beilatokia Funeuskadi Eibar: Otaola, 27 Bulegoa: Bidebarrieta, 6

24 orduko zerbitzu iraunkorra
☎ 943 82 15 39 · www.funeuskadi.com

GRUPO Funeuskadi
El primer grupo funerario de Euskadi

- Eibar · Donostia · Bilbao · Barakaldo · Leioa · Getxo · Sestao · Portugaleta · Santurtzi · Galdakao · Sodupe · Espinosa de los Monteros ·

100 ANOS
BURBU VERTAS
Certificado
Fu. Tacatarios y Crematorios

Lanbide Heziketa Azokia eguenetik aurrera

Martxuaren 14, 15 eta 16xan Debarreneko I. Lanbide Heziketa Azokia hartuko dau Armerixa Eskoliak. Eguenian 10.00etatik 14.00etara eta 16.00etatik 19.00etara egongo da zabalik azokia eta, bestiak beste, "Lanbide Heziketaren eta Enpleguaren arteko harremana" izenburuko mahai-ingurua (10.30xetan) antolatu dabe, honako parte-hartzailliekin: Eduardo Zubiaurre

(JAZ Zubiaurre), Jesus Astigarraga (Danobat), Julián Hernando (TVA, ACICAE), Eduardo Gonzalez (Mendaroko Ospitaleko zuzendarixa) eta Iñigo Pérez (EPC). Goiz osuan, bestalde, DBH-ko eta Batxilergoko ikasliekin programatuko bisitak egingo dira eta arratsalderako hainbat taillar antolatu dittue (egitarau osua www.debegesa.com helbidian irakorri zeinkie). Izen-emotiak



943 82 01 10 telefono zenbakira deittuta edo pymes@debegesa.com helbidera idatzitta egin leikez eta sare sozialetan

(facebook.com/AbianDebarrena eta @AbianAzoka) informaziño eguneratua jasotzeko aukeria egongo da.



Italiako Zirkua aillegau jaku

Martitzenaz gozotik ezin leike Otaola Hiribideko (Mendi-guren y Zarruako) aparkalekua erabili, egunotan han zirkua dagualako. Italiako Zirkuk gaurtik hasitta hainbat ikuskizun eskinduko dittu: gaur (martxuak 8) 19.30xetan; bixar (zapatua) 17.00etan eta 19.30xetan; domekan, 12.00xetan eta

17.30xetan; astelehenian, 18.30xetan; hurrengo barixakuan (15ian) 19.30xetan; zapatuan, 17.00etan eta 19.30xetan; eta hillaren 17xan, 12.00xetan eta 17.30xetan. Sarrerak alde aurretik interneten erositta erdi prezian eskuratu leikez eta, bestela, zirkuko txarteldegixan be salgai ipiñiko dittue.

Geltoki Market zapatuan Estaziñuan

Gabonetan lehelengoz egindako azokiak euki eban harrera onarekin animauta, Zona 10 alkartekuak azokia antolatu dabe atzera be: bixar Geltoki Market 10.30xetatik 15.30xetara egongo da martxan Estaziño kalia (trafikuaendako itxiko dabe), 100 bat posturekin. Aurrekuan lez, bestiak beste bigarren eskuko azokia, artisautza, Lambretta motorren konzentraziñua, janari-billetia, futbolin txapelketia, ludotekia, bertsolarixak balkoietan (12.00xetan, 13.00ian eta 14.00xetan), break dance erakustaldixa, photocall-a eta beste hainbat egingo dittue.



Geltoki Market-ak bost orduko iraupena izango dau. LEIRE ITURBE

...eta kitto!-ko batzarra eguenian

Datorren asteko eguenian ...eta kitto! Euskara Elkarteak Urteko Batzar Nagusixa egingo dau (Urki-zu, 11 solairuartian), 19.00xetan lehelengo deialdixan eta, bazkidien erdixa ordurako ez bada agertzen, bigarren deialdixan 19.30xetan. Gai-zerrendia hónetxek osatzen

dabe: 2012ko gestiño-balanzia, Tokikom eta Federaziñuaren kongresuaren gaiñeko hausnarketia, 2013rako proiektuak, bazkide kuantak eta aurrekontuak, galderaerantzunak eta iradokizunak, eta zuzendaritza barrixaren aukeratzia.





IRANTZU VARELA (kazetaria)

"Berdintasunaren espejismoak asko apaldu gaitu"

Gaur, martxoak 8, Emakumearen Eguna da eta horren harira hitzaldia eman zuen martitzenean genero zuzentasunean aditua den Irantzu Varela kazetariak "Hegoaldeko Emakumeen Ahotsak: la participación sociopolítica de las mujeres del sur" izenburuari jarraituta, Egoaizia GKE-k Lacasiun Debabarreneko Emakume Latinamerikarren elkartearekin elkarlanean antolatutako saioan.

- Hitzaldiaren izenburua abiapuntutaz hartuta, nolakoa da Latinamerikako andren parte-hartze soziopolitikoa?

Latinamerikako andrak politikoki aktiboak dira. Borrokan antolatuta dauden andrak dira. Sarritan beste herrialde edo kulturetako andrek guk ezagutzen dugun errealitateak ezberdintzen den beste errealitate bat bizi dutela pentsatzeko joera daukagu, baina elkarri asko irakasteko eta elkarrengandik asko ikasteko daukagu, bakoitzak bere eskaera espezifikoak izanda ere. Azken batean generoen arteko ezberdintasuna sistema kapitalistak eragindakoa da eta, beraz, denak berdinak gara ezberdintasunean. Borroka mundu mailakoa da.

- Latinamerikako andrak aipatzean askori matxismoaren irudia datorkie burura. Irudi hori errealitatearekin bat dator?

Patriarkatuak azalarazteko modu ezberdinak dauzka. Oso erraz ikusten ditugu gureak ez diren beste kultura batzuetan gertatzen diren gehiegikeriak eta askotan ez gara konturatzen gure inguruan

SOSLAIA

Irantzu Varela kazetaria da eta Nazioarteko Kooperazio Masterra eginda dauka. Kooperazio eta garapen GGKE-etan, erakundeetan eta unibertsitatean beharrez jardun eta gero, 2007an UNA Gestión & Comunicación enpresa sortu zuen. Feminismoan autodidakta izan arren, esperientziarekin aberasten joan da eta bere enpresa gaur egun estatu mailan erreferente izatera ailegatu da. 2009az geroztik feminismo-tailerrak ematen ditu. Factoría Lila-ko partaide ere bada sorreratik (2012. urtetik).

gertatzen diren beste batzuekin. Etxebarruko lanak nola banatu eta beste kontu asko toki guztietan errepikatzen diren arazoak dira, nahiz eta modu ezberdinetan azaleratu.

- Hitzaldiaren izenburura bueltatuta, zein da Latinamerikako andren parte-hartzea gizarte eta politikan?

Betidanik bete izan dute oso toki ga-

rrantziatsua komunitatean. Horren hamai-ka adibide daude, baina bat aipatzearentan Perun 80ko hamarkadan monetaren balioak behea jo zuenekoak ekar dezakegu gogora. Azken batean, muturreko egoeretan aurre egin ahal izateko, bizirauteko antolatzeke izan duten premia horrek esperientzia handia eman die beste maila batzuetara pasatzean nola egin behar duten jakiteko. Bolivian lauzpabost urte aurretik nekazariak ziren parlamentariak daude. Horrelako kontuetan asko daukagu ikasteko.

- Gu eurak baino libreagoak garela pentsatzen dugu, baina hala da?

Nik horri "berdintasunaren espejismoa" esaten diot. Gure artean oraindik ere asko geratzen zaigu egiteke: behar bera eginda gizonezkoek baino gutxiago irabazten dugu, astero emakume bat hiltzen du inguruko gizonen batek... Baina desberdintasunaren barruan mailak daude eta gure kasuan badirudi nahiko soti-la bailitzan ikusten dugula eta, horren erruz, gainera, asko apaldu gara.



JAVIER MANDIOLA BLASCO

2013ko otsailaren 5ean hil zen, Brasilen

Mila esker guztioi Javierri bere hiletan zuen berotasuna emateagatik.

BERE FAMILIA



Hamendik hillabete batera, merkadillua Txikitotik Errebalera

Gurian astiaren erdira ailegau garala aditzera emoten deskun merkadilluak eguna ez, baiña kokapena aldatuko dau hamendik hillabete batera. Postuetakuak jakiñaren gaiñian dagoz eta Txikitoko azken eguaztenian egingo dan zozketaren zaiñ, jakitteko Errebalian nun izango daben kokapena. Errebal ingurua indartu nahi izan dau Udalak neurri horrekian eta, Urkizuko postuekin (hor parkian jarraituko dabe) eta Rialtoko Merkatu Plazarekin lotura bat egittia. Errebaleko aparkalekua, bestalde, martitzen gabetan kendu egingo dabe, gero eguaztenetan, 15.00etan, barriro zabaltzeko.



Txikitora juan aurretik Untzagan egon zan merkadillua, baiña arazuak sortzen zittuan zirkulaziñuan.

Aurreko asteko Plenuan onartu zeban Udalak gaur egun Eibarko Txikito eta Txantxa-Zelai kalietan eguazteneko egitten dan merkadillua Errebaleko aparkale-

kura eruatia. Horrek ordenantzen aldaketia dakar eta, horregaittik, "BOEn, aldizkari ofizialian, publikau eta gero, hillabete bateko epia zabalduko da nahi dabenak alegaziñuak egitteko", diño Iker Rodríguez Gisasola Eibarko Udaleko zerbitzu-buruak. Seguruenik aste honetan kaleratuko danez, "Aste Santu ostian, apirillaren 10ian edo 17xan" izango da merkadillua Errebal inguruan. Inguruan diñogu ubikaziño horretan lehen be, oin dala urte batzuk, egon zalako, lehengo Merkatu Plaza inguratzen: "Orduko muelliaren inguruko aparkalekuen tokixa hartzen zeban, baitta Coliseoren aurrealdia eta Merkatu Plazarena".

Aldaketiaren arrazoiak ez dira bakarrak: "Alde batetik, Txikito inguruko establezimenduen kejak dagoz, haiziarekin eta zikinkerixia zabaltzen zala esaten zeskuenak", diño zerbitzu-buruak. "Bestalde, erdiko aldia indartu nahi izan dogu, bertako merkatarixak halan eskatuta. Modu horretan, merkadillo bixak -Urkizukuarekin ahalik eta hurbillen dagoz, eta Rialtoko Merkatu Plazarekin distantzia laburrian unidade moduko bat osatzen dabe", diño Iker Rodríguezek.

Aurretik aprobria egiñ eben ea postu guztiendako tokirik zeguan Errebalen, "burdiñazko estrukturak eta erabillitta"; hor ikusi zeben danak sartzen zirala. 33 postu dagoz guztira



Urkizuko beheko parkian 15 postu dagoz, janarixenak ixa danak.



Andoni Argoitia Urkiola

(JUAN ANDRES GURE LANKIDEAREN ANAIA)

Otsailaren 28an hil zen, 48 urterekin

Gure atsekabea eta elkartasuna adierazi nahi diegu haren senide eta lagunei.

...eta kitto! Euskara Elkarteak

“arropenak danak, konplementuak eta zapatenak barne”. Postuetatik aparte, aparkalekuak be izango ditue batzuek, ez danak: “Goiko azken merkadilloko egunian zozketia egingo dogu, Txantxa-Zelaiko tenpletian, postuen kokapena eta aparkalekuak banatzeko”, diño Rodríguez Gisasolak. Errebalekua ondo kokatuta dargala pentsatzen dau berak, “jendiarentzat hiru sarrerekin”. Eta inguruko dendentzat, “batzuekako konpetentzia izanda be, gehixenendako konplementarixua da eta ingurunia bizibarrizteko balioko dau”.

33 postu eta beste 15 Urkizun

Errebalera juango diran postuak 227 metro lineal hartuko ditue. Urkizukuak, “fruta eta berdurianak gehixenak, kenda bat bakillauana eta beste bat lorak saltzen dituan”, 15 postu dira eta guztira 90 metro karratu hartzen ditue. Postu gehixago be izan dira behian, baiña danak beheko parkian ipintzia erabagi zan “eta goikua jendiaren aisialdirako libre lagatzia”.

Tasak urtero aldatzen ditue gitxi gorabehera, “IPK gehituz”. Errebalera juango dira-

nak oiñ 39'55 euro ordaintzen dabe metro bakotzeko hiru hllabeterako; Urkizukuak, bestalde, 29'50 euro ordaintzen dabe neurri bereko postu bakotzeko.

Badira bizpahru urte lizentziak barritu zittuela, denbora baterako: “2019xan amaitzen jakuez hórrek lizentzixok”. Saso bateko kuoten errekurritzia-eta alboratuta, azken aldian hartu-emon normala dake saltzailliak eta Udalak. Zertaz keajzen diran galdetuta, “aparkalekuen faltia, postuen luzeriaren ingurukuak eta topmanten konpetentzia dira gehixen aittatzen” dittuanak. Bizkaittik eta Gipuzkuatik datoz gehixenak, “Errioxako jendia be badago”, eta Eibarkua plaza onenetakua dala diñue, “jendiak, begiratziaz aparte, erosi be egitten dabelako”.

Saltzailliak ez dabe eskatu

Toki aldaketia ez dabe denarixak edo merkadilloko saltzailliak eskatu, orokorrian pozik dagoz-eta Txikiton: “Kanbixatzekotan, aukeran Untzagan nahixago”. Baiña ez detse lagatzen, lehen be traba larregi egitten zebelako: autobus geltokixa, trafiko arazuak... Edo-



Errebalen tokixa izango da guztiendako 33 postuendako.

zelan be, Udalak Errebalera juateko proposamena egiñ eta onartu egin dabe. Toki barrixan aparkatzeko tokixarekin ardurauta dagoz, “parking barruan puesto guztiak eta furgonetak sartzeko tokixa ez dalako egongo”. Egokixena Blas Etxebarria ingurua eureri aparkatzeko lagatzia izango zala uste dabe, baiña badakixe halakorik ezingo dala egiñ. Jakin dakixen moduan, Txikito inguruko batzuren kejekin batera, Zona 10 eta ingurukuen merkadillua behera eruateko interesak eragindako kanbixua dala. Beste aldaketa bat, euren postuekin herririk herri egunetik egunera aldatzen ibiltzen diran merkatarixendako.

Jaixetako postuak

Sanjuanetako eta Arratieta-ko postuetarako pliego bati jarraitzen detse “oin dala hiru urtetik edo”. Ekaiñeko bost egun horretarako hainbat aldaketa aurreikusten dira gaiñera: “Calbeton kaleko postuak kendu eta Eibarko Bizikleta plazara eruango ditugu. Koskorren aurrin dakagun garajia librauko dogu holan, kaleko tabernak euren terrazak ipiñi ahal izango ditue eta karrozia pasatzeko be asko gitxituko dira arazuak”. Postu kopurua jaitsi egingo da, “Untzagakuekin 45 ziranak 25era pasauko dira, gitxi gorabehera”. Bataz beste, 60 euro ordaintzen dabe metro bakotzeko bost egunetarako.

BARRIO autobusak eta mikrobusak

www.autocaresbarrio.es
info@autocaresbarrio.es

MOBILA: 659 87 89 89
943 17 15 01 / Aldapa, 6 (ERMUA)

Radio Eibar

CADENA SER

104,0 FM

Izadi

LORADENDA

- Lora eta landare natural eta lehorrak
- Ezkontzetarako lorak

San Juan, 1 Tel. 943 20 33 29

EGOITZA NAGUSIA
Bidebarrieta 20 - behea, eskuma

M FUNERARIA MUGICA

Tanatorio Crematorio del Bajo y Alto Deba

- ↳ Tanatorioa eta Errausketa labea
- ↳ Elgoibarren (Sigma poligonoan).
- ↳ Partikular, mutua eta aseguru etxeei zerbitzuak
- ↳ Koroak - Eskelak - Urteurreneko eskelak
- ↳ Euskal Herri osoko ospitalean hartzen zaitugu
- ↳ Nazio eta Nazioarteko traslagoak

Mugica Ehorzketa
Funeuskadi taldea

TELEFONOA (24 ORDU)
943 201 951

SWAP-EN AURREAN

Entzuten dugu. Orain dela urte bete inork gutxi zekien zer esan nahi zuen swap hitz honek. Gaur egun ere, zehatz mehatz zer den ez dakigu, baina hasi gara entzuten gure inguruko pertsona askok swap kontratu bat sinatu zutela bankuren batekin eta horregatik arazoak dituztela.

Nola saldu ziguten. Finantza-erakundeek (banku eta aurrezki kuttexek) swap kontratua moduko produktuak eskaini eta gomendatu zizkieten euren bezeroei 2008ko krisialdia hasi baino urte gutxi lehenago. Eskaini zituztenean, kasu gehienetan aseguru bat zela esplikatzaren zuten. Aseguru bat interes tipoa igoeraren aurkakoa. *“Aseguru honekin euriborrek gora egiten badu, bankuak ordaindu egiten dizu”,* esaten zuten, *“eta ikusten duzu euriborren bilakaera goranzkoa dela”.* Gerora swap kontratua sinatu zuten banku-bezeroak konturatu ziren sei hilabetero edo urtero bankuak kobratu egiten ziela kontratu honengatik, kasu askotan kopuru altuak. Zergatik ordaindu behar diot bankuari aseguru kontratu bat sinatu banuen? **Ez zen aseguru bat.** Kontratuan ez da inondik inora aseguru hitza agertzen.

Zer da. Swap kontratua finantza-elkartruke kontratua da: bezeroak eta bankuak elkarren artean kuota bat trukatzaren dute, nominal bati interes tipo jakin bat aplikatuz ateratzen den emaitza hain zuzen. Oso kontratu konplexua da, eta zaila azaltzen. Adituek diote gainera arrisku altuko produktua dela, bezeroak “apostu” moduko zerbait egiten duela kontratu hau sinatzerakoan. Kasu gehienetan bezeroei ez zitzaien nahiko informazio eman, eta eman bazitzaie ere, nekez ulertu ahal izango zuten, matematika finantzieroa jakin behar baita edukiaz jabetzeko.



Zuzenbideari buruzko edozein zalantza izanez gero, idatzi erredakzioa@etakitto.com helbidera; hurrengo alean zalantza horiek azaltzen saiatuko gara.



Elena Laka
abokatu

KONTRATUA DEUSEZTATZEA BADAGO

Bezeroak kontratu direnean swap kontratu honen ondorioz jasaten ari diren diru-galerak, auzitegiara jotzen hasi dira kontratua desegitea lortzeko.

Swap kontratua auzitegiaren deuseztatzeko argudioak.

- Finantza-erakundeek ez zieten nahikoa informazio eman bezeroei kontratua sinatzeko orduan.
- Finantza-erakundeak konfiantza gehiegieriaz jokatu zuten, kontutan izanda gainera erakunde eta bezeroak ez dutela maila bereko posizioa kontratua sinatzerakoan, desoreka jarrera batean daudela.
- Bezeroek kontratuaren edukinaren nondik norako zehatza jakin gabe sinatu zuten.
- Bezeroa okertuta zegoen kontratua sinatzearen aldeko borondatea agertu zuenean.
- Finantza-erakundeak nahikoa informazio izango zuten aurreikusteko 2008tik aurrera interes tipoa behera joango zela, eta beraz swapa nabarmen euren aldekoa izango zela.
- Swap kontratua finantza-erakundeak eskaintzen eta gomendatzen zuten produktu bat zen, ez bezeroak eskatutakoa.

Eibarren ere bai. Swap kontratuak deuseztatzeko demanda judiziala kontratua sinatu zen herriko barrutian egin behar da. Eibarren edo Debabarrenean sinatu bazen, Eibako epaitegiaren. Eibako epaitegiak dagoeneko eman dituzte epaiak finantza-erakunde bezeroei arrazoia emanez, eta beraz, swap kontratuak deuseztatuz, eta era berean bidegabe jasotako diru bueltatzeko aginduz.



TEEN AJEAK

Astelehenean zabaldu zuten aurtengo uda Euskal Udalekuetan igaro nahi dutenentzat izena emateko epea www.euskaludalekuak.org webgunean. Urtero legez, Euskal Herri osoko ume eta gazteek bat egingo dute Abaigar, Goñi eta Bernedoko udalekuetan, han pasatuko dituzten egunetan behintzat euskeraz bizi eta gozatzeko. Miren Baranguan eta Nerea López ere han izango dira, hezitzaile modura lan boluntarioa egiten.

- Nolatan animatu zarete Euskal Udalekuetara begirale joaten?

Aurretik, umetan udalekuetara joaten ginen eta azken urteetan laguntzen-eta ibiltzen ginenez, praktika modura begirale modura jarduteko joaten jarraitu genuen biok. Berez, udalekuetan begirale izateko nahikoa da 16/17 bat urte izatea, euskeraz jakitea eta motibazioa edukitzea. Horrez gain, jakina, komenigarria da umeak gustatzea, egun osoa eurekin batera ibili behar duzu-eta.

- Zuek ume modura zein begirale modura ezagutzen dituzue udalekuak. Nolako giroa izaten da?

Euskal udalekuak hamabost eguneko iraupena duen euskeraren inguruko ospakizun modukoa dira. Talde izaera lantzeko aukera emateaz gain, hezkidetzaz, natura, kontsumismoa, euskera eta beste hainbat gai lantzeko aukera ematen dute, horietatik abiatuta antolatutako jardueren esker. Izan ere, antolatzen diren guztiak helburu horri ja-

rraituta prestatzen ditugu, begiraleek eta umeek elkarlanean. Izan ere, umeek zuzen-zuzenean parte hartzen dute jardueren antolakuntza eta bestelako lanetan. Jarduera guztiak han inguruan eta natura errespetatuz egiten dira.

- Zergatik gomendatzen duzue Euskal Udalekuak eta ez beste batzuk aukeratzea?

Euskeraz bizitzeko aukera paregabea eskaintzen dutelako. Gainera, bertara joaten diren umeak Euskal Herriko zazpi probintzietakoak izaten dira eta bestela euren etxe inguruan entzungo ez litzuketen euskalkiak ezagutu eta lantzeko aukera eskaintzen diete, adibidez. Eta inguru erdaldunetan bizi direnei, berriz, egun osoan euskeraz bizi daiten ikustarazteko ere oso baliagarriak dira. Horrez gain, jakina, jendea bertara joatera animatu nahi dugu benetan ederto pasatzen delako! Oso esperientzia polita dela uste dugu. Amaierarako gure eta umeen artean benetan laguntzeko harremana sortzen da.



Miren Baranguan & Nerea López
(EUSKAL UDALEKUETAKO BEGIRALEAK)

"Euskal Herri osoko umeek elkarrekin euskeraz gozaten dute"

*"Egunez zure irribarrea amets dudala biziko naiz.
Ganez izarrak izango ditut lagun.
Bidean argi egingo didan artizarra izango zara.
Banca, baina zin daqizut bihar itzuliko naizela".*

ZURE LAGUNAK ELENA, IGONE, ISA ETA ITZIAR



Martxoak 4
Zure egunean, ANA

GREMIOEN



ANTENAK

BALATZ c.b.
Instalakuntzak eta konponketak
antena - telebista
Bidebarrieta, 37 Tfnoa. 943 20 05 08
balatz@euskalnet.net Faxa. 943 20 04 94

ELEKTRIZITATEA

Tfnoa: 943-530356
Mobila 688-674242
Barrena, 21 - 3. A
ALBERTO ELEKTRIZITATEA
DASILVAALBERTO@HOTMAIL.ES
INSTALAZIOAK ETA
MANTENIMENDUA

GARBIKETAK

Limpieza Multiservicio Eibar
Superficie mota guztietako garbiketa eta mantenimendu zerbitzua
Tfnoa. 943 254 615
Mobila 688 609 171 Barrena, 21 - 1. F

Ego Gain z/g
Tfnoa. 943 12 73 50
Faxa. 943 20 73 60
www.trinmer.com
trinmer
TELEKOMUNIKAZIOAN
PROFESIONALAK

ELECTRICIDAD
CUADRA EC
Barrena 26 / 20.600 Eibar / T943 121642 / F.943 204307 / ec@electricidadcuadra.com
INSTALAZIO ELEKTRIKOAK
TELEKOMUNIKAZIOA
INDUSTRIA MANTENUA
PROIEKTUAK
ERREFORMAK

TREJO
GARBIKETAK S.L.
Tel: 943-752557
Faxa: 943-752556
16 Postakutxatila - Soraluze
Garbiketa eta mantenimendua

AROTZAK

IÑAKI
Egurrezko mota guztietako lanak Ateak - Tarimak Altzariak
Milaflores 10 Tfnoa. 943 20 35 55

GURIA
ELEKTRIZITATEA
Muntaiak eta proiektu elektrikoak
Matsaria 2 7. pabilioa
Tel. 943 70 08 95
Fax. 943 82 00 27
www.electricidadguria.com

HODI-LIBRATZEAK

ATAX
— Hodi-libratzeak
— Saneamenduen garbitzea
— presio handiko makinariarekin
— Ur ateratzea ufaletan ondoren
www.desataxcos.com
LARRIALDIETARAKO (24 ordutan): 673 304 222

SUKALDE ALTZARIAK
*
AROTZEGIA
Iparragirre Anaiak
F. Calbetón, 4 behe Tel. 943 20 29 27
Tailerra: Apalategi auzoa Tel. 943 12 01 92
Mobila: 657 79 56 78

Ego-Gain, 9 ac. ARGIZTAPENA,
KONPONKETAK
ETA INSTALAZIO
ELEKTRIKOAK
ibarra 677 51 24 62
943 20 06 97

ulmar
S.L.
metalezko eraikuntzak
aluminiozko eta PVC-ko arotzegovia
baita toldoak, gortinak, estoreak etabar
Txonta, 30 - 1. eta behea
Tfnoak: 943 12 13 67 Faxa: 943 12 01 50
ERAKUSKETA
EIBARREN, Urkizu 26an (Tel. 943 12 74 01)

Informazio gehiagorako



943 20 67 76



IGELTSEROAK

IGELTSERITZA



CAMILO ALVAREZ OROKORREAN

– Barne erreformak
(sukaldeak, bainugelak, leihoak etb.)

– Gremioen koordinaketa

Jardiñeta, 25 - behea
620 060 104 (Ernesto)
600 465 789 (Fran)



irazabal
Jose Maria Irazabal, S.L.

ERAIKUNTZA ETA ERREFORMAK
IGELTSERITZA ETA
GREMIOEN KOORDINAKETA

eraikuntzak erreformak igeltseritza

Azitain Industrialdea, 3 H Pabilioia
Tfnoa. 943-120108
www.irazabal.net

ITURGINTZA



Gasa
Kalefakzioa
Klimatizazioa
Eguzki Energia

Fontanería Jardines

Tel. 943 206 913
615 782 638
615 782 637
Fax. 943 254 929

Jardiñeta, 11 B
fontaneriajardines@euskalnet.net



MUGICA
ITURGINTZA

AIRE EGOKITUA, ITURGINTZA,
GASAREN INSTALAZIOA, KALEFAKZIOA,
PETROLIO-PRODUKTUAK, BAINUEN
ERREFORMAK ETA ABAR...

HANGROHE KANILEN BANATZAILEA
ZORU ERRADIATZAILEA
EGUZKI-ENERGIA

Egigurentarren, 18
Tel. 943 20 10 30 - Faxe. 943 20 72 24

KRISTALAK



ACHA Kristaldegia

TAILERRA: ERREKATXU, 3an
KRISTAL ARLOKO SOLUZIOAK

c.acha@euskaltel.net eta faxa:
ERAKUSKETA: Arikitzaneko Zubia 943 20 39 03

PINTURAK



DECORACIONES
AIXA
José Luis Irionda

Pintura orokorra
Margotutako paperak
Zoruen kolokazioa
PVC zoruak
Maketak
Alfonbrak
Kortinak
Etixerakoak
Osagarriak

Tfnoa. eta Faxe.
943 20 05 94
T. Etxebarria, 8 - behea



PINTURAS ARRATE, S.L.

- Nexa Autocolor
- Pintura industrialia
- 3M produktuen banatzailea

MATSARIA, 34 behea - A
parrate@terra.es
Tel. 943 20 41 04 Faxe: 943 70 06 89



MALVAR PINTURAS

Sostoa, 16 ac behea
Tfnoa. eta Faxe. 943 700 900
Mobila. 656 784 396



VICTOR GONZALEZ FRAIZ
PINTURA OROKORREAN

BARNE eta KANPOko
dekorazioa eta pintura,
FATXADAK, PINTURA BEREZIAK,
ENPAPELATUAK, GOTELÉ...

Bizkaia Etorbidea, 9 -ERMUA-
696-565394 / 943-030540
victor-fraiz@hotmail.com



Urkok 3-2 irabazi zion Realari

Emaitza horrekin, gainera, sailkapeneko 3. postuan finkatu da, Athletic eta Osasunaren atzetik, eta Realari sei puntura laga du jubentail mailako ohorezko mailan. Jubentailan ere, baina Euskal Ligan, Eibar B-k 1-3 galdu zuen Tolosarekin eta 7. postuari heltzen dio. Kadete mailako Euskal Ligan 1-2 irabazi zuen Gernikan eta 9. postuan jarraitzen dute. 2. mailako nesken taldeak, bestalde, bana berdindu zuen Abantorekin Unben eta sailkapeneko azkenaurreko postuan jarraitzen du.

Selekzioarekin

Julen López eta Mikel Santamaria Urkoko jokalariek Euskadiko 18 urte azpiko selekzioarekin jokatu zuten eguaztenean Lezamako instalazioetan eta Eritz Egia eta Aitor Urresti Euskal Ligako kadeteak 16 urte azpikoaren deialdian izan ziren.



Debarrena Concepto Egile historia egiten

Ametsa errealitate bihurtu du areto-foballeko taldeak eta, eskubaloiko Bartzelonarekin batera, talde bakarra da foballa, saskibaloia, eskubaloia, errugbia eta areto-foballeko goiko hiru mailetan partidurik galdu gabe. 2. B mailan diharduen Concepto Egilek azken jardunaldian 5-6 irabazi zuen Zaragozako Quinto de Aragónen kantuan eta, Zierbana bigarren sailkatuak galdu egin zuenez, bederatzi puntuko aldea ateratzen die bizkaitarrei. Alexek eta Fher-ek bina gol sartu zituzten eta Raulek eta Ivanek beste biak.

Ariznabarreta eta Pacheco nagusi Eibarko Duatloian

Aurreko zapatuan jokotutako Eibarko Duatloian 22. edizioan, Oier Ariznabarreta durangarra (1:00:43) eta Ainara Pacheco donostiarra (1:12:25) izan ziren garaile. Eibar Triatloi Taldeak, Gipuzkoako eta Euskadiko triatloi federazioekin batera, antolatutako proban sprint distantziako Gipuzkoako txapela ere bazen jokoan eta, nesken kasuan Pachecorentzat izan zen moduan, mutilen kasuan 3. postuan sailkatu zen Trigo taldeko Luis Mari Urizarrentzat izan zen.



Eibartarrei dagokienez, Deltecoko Juanjo Romero 2.a izan zen beterano 2 mailan, Txomin Osoro 3.a juniorretan eta Pello Osoro 4.a 23 urtetik azpikoetan (azken hau 2.a domekan Isaban, Euskadiko Neguko Triatloian).

Eskola errugbikoaren azken jardunaldia Multikirolean

Multikirola programaren barruko azken jardunaldia jokatu zen zapatuan alebin mailako errugbian eta, Unben, Eibar eta Soralezko LHko 5. eta 6. mailako 200



neska-mutil baino gehiago izan ziren errugbiko goiz zoragarriaz gozatzeko. Talde guztientzako sariak, jokalarientzako kamisetak eta gurasoentzako salda beroa, pintxoak eta ardoa ere egon ziren, kalitatezko kirol praktikarekin batera.

Guerraren debut bikaina Eibar Eskubaloian

Jubenila izan arren, Mikel Guerra atezainak ondo aprobetxatu zuen Imanol Alvarez Somos Eibar Eskubaloiak-eko entrenatzaileak emandako aukera eta, partidua amaieran geratutako penaltia baliagarria izan zen oso Egiari 24-23 irabazteko. Garaipena beharrezkoa zuten eibartarrek bigarren postuaren borrokan jarraitzeko eta, hiru jokalariren baja izan arren, amaieran lortu zuten irabaztea. Asteburu honetan liderra bisitatuko dute Sorian, denboraldi amaierara arte jokatu beharreko neurketa zailenean.

Harrobiak bikain erantzun zuen azken jardunaldian: jubentail 23-21 irabazi zuten Bidasoari eta kadeteek 32-30 mugaldeko talde berari eta nesken kadete talde nagusiak 16-12 gailendu zitzaion Ereintzari.



Udaberri Saria Espainiako txapeldunarentzat

Xixongo Ivan Garcíak irabazi zuen domekan Udaberri Sariaren 35. edizioa, bere atzetik sailkatutako Jon Irisarriri eta Julen Irizarri 13 eta 15 segundoko tarteak kenduz, hurrenez hurren. Gijón Las Mestas taldeko Espainiako txapelduna nagusi izan zen proban eta lehiakortasun saria bereganatu zuen; Irisarri bigarren sailkatua, bestalde, mendiko sariaz jabetu zen. Taldekako sailkapena, berriz, Limousin Cartonajes-ek eraman zuen eta Debabarrenako onena Ciclos Iturriagako Pablo Zabala izan zen.



Lasterketa amaierako podiuma, hiru lehenengoekin. LEIRE ITURBE

Urbateko igerilari bi Espainiako txapelketan



Aurreko eguenetik domekara arte Mallorcan jokaturako neguko Espainiako txapelketan, bikain jardun dute Urbat-Urkotronik-eko ordezkari biak, euren marka pertsonalak hobetuz hainbat probatan. Ander Izagirrek (50, 100, 200 eta 400 librean), gainera, hainbat finaletan hartu zuen parte, 10., 11. eta 13. postuak bereganatuz. Ioar Urkirik 100 eta 400 libreetan, 100 bularrean eta 200 estiloetan hartu zuen parte.

Binakako txapelketako partidua Astelenan

Hiru jardunaldiren faltan, Martínez de Irujo eta Zabaleta profesionaletako binakako txapelketako liderrek Pablo Berasaluze eta Albisuri egingo diete aurre Astelenan domekan jokatu den jaialdiko partidu nagusian. Aurretik, 2. mailako partiduan, Apezetxea-Larrinaga eta Rico IV.a-Untoria bikoteek jardungo dute, nor baino nor. Jaialdia amaitzeko, Olazabalek eta Arrutik Elezkano II.a eta Larunberri egingo diete aurre.



Eibar KE - Noja bihar 17.00etan



Viadero Nojako entrenatzailea berriro izango da Eibarren.

Aurreko domekan, azken minutuan eta eztabaidarako penaltiarekin, Teruelen galdutako partidua larriratu egin du Gaizka Garitanoren taldearen egoera. Eibar KE behartuta dago lehenbailehen azken asteko dinamikarekin apurtzera, berandu baino lehen, Barakaldo 5. sailkatua eibartarrendandik bi puntura kokatu baita sailkapenean. Ipuruako neurketa 17.00etan hasiko da.

Recio eta Urkia waterpolo selekzioekin

Oraindik kadetea den Mikel Recio Antonio Aparicio Espainiako federazioko arduradunak prestatutako teknifikazio jardunaldian izan zen eta Joseba Urkia infantila Euskadiko selekzioarekin izan da martxoaren 23an Madrilan jokatu den liga autonomikora-ko prestatzen.

Azken asteburuan, bestalde, Urbat-Urkotronik-eko talde nagusiak 11-3 irabazi zion Bidasoa B-ri eta kadete mailakoak 9-4 Lautadari, azken honetan Unai Iteztezainaren lan bikainarekin.

berriak

FOBALL-ZALETUA

Kiroljokoa ligako azken jardunaldiak ez zuen aldaketarik ekarri sailkapenera, goiko postuetan diharduten guztiak irabazi zutelako. Hurrengoak, baina, garrantzi berezia hartzen du, ihes eginda dauden hiru taldeetatik bik euren artean jokatu beharko dutelako: Garajes García (47 puntu) eta Koskor-en (46) arteko biharkoak (10.30etan) gauzak argitu dezake. Horko emaitzaren zain egongo da Txoko (47), justu jarraian Alkidebarekin lehiatuko dena.

ALPINISMO IKASTAROA

Hilaren amaierarako (Aste Santu barruan, 30ean eta 31n) ikastaroa antolatu du Gipuzkoako Mendi Federazioak. Glaziare alpinismokoa izango da eta Valle de Tena / Portalet-en egingo da, honako helburuarekin: ingurune glaziarrean autonomiaz eta segurtasunez 40-45° arteko aldapak dituzten bide errazetatik ezagutza teoriko-praktikoak eskuratzea eta soka, pioleta eta kranpoien oinarriko erabilera, glaziarrako tenkaketarik edo enkordamendurik gabe.

Martxoak 10
domeka
20.30
Coliseoan



MIKEL MARTINEZ (aktorea)

"Ikuslea harritzea besterik ez dugu bilatzen"

Mikel Martínezek, Patxo Telleriarekin bikotea osatuta, lan berria aurkeztuko du Antzerki Jardunaldien barruan. "Lingua Nabajorum" antzeztuko dute domekan Coliseoan, 20.30etatik aurrera, euskerarekin jolastu eta barre egiteko aprobetxatuz. Ez Dok Hiru Biko Teatroak eskainitako lana izango da, Telleriak egindako testuari jarraitzen diona.

- Orain arte bion artean egindako ibilbideari begirata, zertan da desberdina 'Lingua Nabajorum'?

Ez dugu askorik apurtu, aurrekotik berdintsua baita. Gure motako umorearekin jarraitzeaz aparte, oraingo hau "Monty Python-ago" irten zaigula diote. Dialogoetan umore azkarra eta ironikoaren alde egin badugu ere, ezin ukatu oraingo sketchak jantziagoak eta bisualagoak direla: Marx anaien umorea baztertu dugu pixka bat eta Monty Python-ena geureganatu.

- Zer adierazi nahi izan duzue lan berri honekin?

Ezer ere ez. Antzerkiarekin eta euskararekin jendeak barre egitea beste helbururik ez dugu: hori eta harritu daitezela! Zein ondo euskalduna naizela! esanez irten daitezela besterik ez dugu nahi. Historia honetan dena gezurra da, denetariko astakeriak erabiltzen ditugu... baina jendea horretaz ohartzen da.

- Umorea erabiltzen duzue, batez ere. Hala ere, obrak badu zeozer serioetik?

Egileak gara, gure ideiak idatzi eta taularatu egiten ditugu. Gure umorea erabiltzen badugu ere, gure nortasun serioa adierazten dugu modu horretan. Munduri buruzko ikuspegia azaleratzen dugu horrela, nahiz eta helburua hori ez izan.

- Esaten duzuen moduan, hizkuntzak aurrera egiteko beharrezkoa da konfliktuaren presentzia?

Ez dauka zertan. Nahiz eta horrela erakutsi bizirik dagoela, ez dugu sinesten hori beharrezkoa denik. Egoerak guztiz erridikuloak dira planteatzen ditugunak, barre eragiteko prestatutakoak. Harrigarriaren bila dihardugu, hizkuntzarekin malabarismoak eginez, eta jendeak hori ondo baino hobeto ulertzen du.

- Orain arte, zelan erantzun du ikusleak?

Konturatu gara gero eta ezagunagoak gara: zeozergatik da bion artean antzezten dugun laugarren lana. Adin guztietako jendea etorri da eta denek irutzen dute pozarren; baita publiko konkretuentzat eskainitako matinaletan ere.

- Eibarko Antzerki Jardunaldiak zer dira zuentzat?

Euskal Herrian instituzioa izateaz gain, estatu mailan ere garrantzi handiko jardunaldiak dira. Oroitzapen ezinhobeak ditugu eta suertea izan dugu aurretik ere deitu digutelako.

Napoka Iria eta Julieta Venegas Balenciaga Museoan

Napoka Iriak zabalduko dio bidea Julieta Venegas abeslari mexikarrari gaur 20.30etan Getarian, Balenciaga Museoan eskainiko duen kontzertuan. Venegas-ek "Los Momentos" diskoa aurkezteko bira egiten dihardu eta gaurko emanaldia Emakumearen Egunaren harira antolatu dute. Sarrerak www.kutxasarrerak.net helbidean eros daitezke.



Tabernako bertso-saioa Kultun datorren egunean

Datorren asterako bertso saioa antolatu du Arrate Kultur Elkar-teak, Korrika Kulturalaren egitarauaren barruan. Miren Amuriza eta Beñat Ugartetxea bertsolariek saioa eskainiko dute Kultu tabernan hilaren 14an, 20.00etatik aurrera. Gai-jartzaile Hankamotxak bertso eskolakoek jardungo dute eta, horrez gain, Jose Luis Irigoien argazkilariak aurreko urteetako saioetan ateratako argazkiak ikusgai ipiniko dituzte tabernako hormetan.

Ana Riañoren errealitatea Portalean ikusgai

Gaur hasi eta hilaren 24ra arte Ana Riañoren "De realidades y ficciones" erakusketa bisitatzeko aukera izango da Portalean (martitzenetik domekara 18.30etatik 20.30etara). Erakusketa margolari bilbotarrak 2011az geroztik lantzen diharduen proiektuaren emaitza da: koadroetan zinetik hartutako eszenak birsortu eta bere inguruko pertsonaiekin nahastu ditu artistak.



Hiru Ohorezko Aipamenekin Andoaindik bueltan

Otsailaren 23 eta 24an Andoaingo 8. Piano Jaialdiak 900 pianojole gazte hartu zituen, tartean Eibartik joandako 55 bat ume eta gazte. Horien artean Ohorezko Aipamena jaso zuten 9 urteko Aitana Ronchetti Velasco (bakarlarietan, A mailan) "J'ai rêvé que j'étais un papillon" (K. Ishii) piezarekin eta 12 urteko Jon Azkune Zuloagak eta 13 urteko Jorge Lahidalga Etxeberriak, "Gartenmelodie" (R. Schumann) piezarekin (lau eskutara, B mailan). Hiru pianojoleak Isabel Laspiurren ikasleak dira; mutilek zazpigarrenez hartu dute parte Andoaingo piano lehiaketa ospetsuan eta neskatilarentzat, berriz, bigarren aldia izan da.



Jon Azkune, Aitana Ronchetti eta Jorge Lahidalga.

Enrique Gutierrez-ek irabazi du Argazkilaritza Industrial Lehiaketa

Ameria Eskolako Ikasle Ohien Elkarteak antolatutako VII. Argazkilaritza Industrial Lehiaketan sari nagusia Oviédoko Enrique Gutierrez-ek eskuratu du, "Metal" lanarekin. Saria martxoaren 16an Ikasle Ohien Urteko Batzarrean jasoko du, saritutako beste lanen egileekin batera. Bigarren saria Basauriko Asier Camacho Fernandezek eraman du, "Fluido" lanarekin; hirugarrena Kordobako Juan Jose Villarejo Fernandez-ek "La vieja fundición" izenburukoarekin; eta laugarrena, ikasle-ohiari ematen zaion akzesita, Ermuko Joaquin Sanchez Romero-rentzat izan da "Amane" argazkiarengatik.



Epaimahaioek argazki irabazlearekin. 211 argazkiren artean aukeratu zuten.

Jorge Agirresarobe, Jose Luis Irigoien eta Jose Valderrey argazkilariek eta Aitor Buen-dia kazetariak osatutako epai-mahaia 73 lagunek aurkeztutako 211 argazkiren artean aukeratu behar izan ditu irabazleak.

laburrak

TRENAREN MUSEORA

Untzaga jubilatutako etxeak Azeitira txangoa antolatutako martxoaren 20rako, besteak beste Trenaren Museoa bisitatzeko asmoarekin. Autobusa 09.30etan irtengo da Ego-Gainetik. Bazkaria Añota sagardotegian izango da (14.00etan) eta bazkalostean dantzan jarduteko aukera izango du nahi duenak. Txartelak 24 eurotan ipini dituzte salgai bazkideentzat (bazkide ez direnentzat 35 eurotan ipiniko dituzte astelehenean).



UDABERRIKO IKASTAROAK


Udako Euskal Unibertsitateak aurreko astean aurkeztu zuen udaberrirako ikastaro eskaintza. Era guztietako gaiak landuko dira antolatutako ikastaroetan eta horietako asko Eibarren bertan, Markeskua jauregian emango dituzte. Informazio osoa www.ueu.org helbidean kontsultatu daiteke, baita matrikula bertan bete ere.

EGUEN ZURI LEHIAKETA

Aratosten inguruan antolatutako Eguen Zuri argazki lehiaketara lanak aurkezteko epea amaitzear dago: parte hartu nahi dutenek martitzenerako (hilaren 12rako, 21.00etarako) entregatu beharko dituzte argazkiak Arrate Kultur Elkartearen bulegoan edo Kultu tabernan.

KARMELO BASARAS MENDIOLAren X. urteurrena (2003/III/9)

Haren aldeko meza ospatuko da martxoaren 9an (larunbata), 18.00etan, Amañako San Salvador Elizan.





“Bizitzarako Pentagramak” kontzertu solidarioa

Datorren asteko eguean, martxoaren 14an, 19.30etatik aurrera, “Bizitzarako pentagramak” izenburuko kontzertu solidarioa hartuko du Coliseo antzokiak, La Salleko PROYDE-PROEGA Gobernu Kanpoko Erakundeak antolatuta. Antolatzaileek diotenez, “kontzertuarekin arriskuan dauden herritarrenakano elkartasuna sustatu

nahi dugu eta, horrekin batera, Argentinan, Cordobako Malvinasen La Sallek garatzen diharduen Gazteen Etxearen proiekturako diru batu”. Kontzertuan Juan Bautista Gisasola Musika Eskolako taldeek jardungo dute: Xapop eta Face to Eye rock taldeek, gitarra bikoteak eta gitarra-taldeak eta Eibarko Koro Gazteak.



Hipertentsioa eta zoru-pelbikoa mintzagai

Eguaztenean, 19.00etatik aurrera “Hipertensión arterial: consejos dietéticos y uso de medicamentos” izenburuari jarraituta hitzaldia emango du Eibarko Medikuntza Zentruko kardiologoa eta Euskal Herriko Kardiologia Elkarte-ko presidentea den Luis Fernández Lázarak Portalean. Eta Medikuntza Zentruak hi-

lero eskaintzen duen hitzaldi-sorta biribiltzen, martxoa agurtu aurretik hilaren 20an Miren Aranburu fisioterapeutas emango du hitzaldia, “Querido suelo pélvico” izenburuari jarraituta. Betiko moduan, hitzaldiak interesa duen edozeinentzat antolatutakoak dira eta sarrera libre izango da.

Jardunaldia k Antzerki



Martxoak 9
zapatua
17.00
Coliseoan

Ara Malikian
ARA MAILKIAN, JOSE VÉLEZ, HUMBERO ARMAS

“Mis primeras Cuatro estaciones”

Musikari libanoarra historiako biolinjole ospetsuenetakoa beste hiru musikariek eta antzezle narratzaile baten laguntzarekin umeei musikaren esperientzia modu jostagarri eta adierazgarrian helarazten die, Vivaldiren sonetoekin abentura zoragarri batean murgilduz.



Martxoak 9
zapatua
20.30
Unibertsitatean

Teatro A Cuestas
ANA CASAS, MARIBEL JARA

“Locas”

Formatu txikiko ekoizpena ikuskizun handia bihurtuta, bilakaera hori funtzioa osatzen duten elementu guztien bateratze perfektuari esker emanez. Bi emakume ero (edo ez) izango dira psikiatriaren inguruko teoria errotuenak kolokan jarriko dituztenak.



Martxoak 12
martitzena
20.30
Unibertsitatean

Cía. La Cocina
ENRIQUETA VEGA, NA GOMES, PAKO REVUELTAS

“Calla y Come”

Antzezlanak gure benetako eragileen sakontasunera bidaia egitea proposatzen digu, gure alderdi egiazkoena ernetzen hasten den tokira. Ikuskizunak hauskortasunaren itsasoan egindako gure murgiltze, ezjakintasun jakituna bezala bataiatutakoa, erakutsi nahi digu.



Martxoak 13
eguztana
20.30
Coliseoan

Txaika Teatro
DAVID VALDEVIRA, ANGELA ORTEGA, NEREA LARRAZABAL

“Para qué recordar”

Anton Chejov errusiar idazlearen hainbat testuetan oinarritua, bere sormen prozesuan izandako aldarteak nabarmenduz. Bera pertsonalki bere pertsonaietako askotan bihurtzen da eta baita bere zalantzak ikuslearekin partekatu antzezutako hainbat irudi ikustean.

laztanak emoten...

Zure senide edo lagunen bat zoriontzeko aukera ezin hobea eskaintzen dizugu. Argazki arruntaren prezioa 4 eurokoa izango da; argazki bikoitzarena, 8 euro (...eta kitto!ko bazkideentzat %20ko deskontua). Argazkia eta testua eguaztena aurretik egon beharko da ...eta kitto!-n.



Zorionak, ANE, Arritokieta, hillaren 6xan hiru urte egin zenduaz-en-eta. Etxekuen partez.



Zorionak, NAIA, hillaren 5ian zortzi urte bete zenduaz-en-eta. Patxo haundi bat aitaxo, amatxo eta Jonen partez.



Zorionak, MADDI, gure printzesak gaur bederlatzi urte betetzen diitu-eta. Etxekuen partez.



Zorionak, UNAX, hillaren 6xan sei urte egin zenduaz-en-eta. Muxu haundi bat famelixaren partez.



Zorionak, AIORA, astelehenian lau urte egin zenduaz-en-eta. Muxu haundi bat aitaxo, amatxo eta Oihenarten partez.



Zorionak, AITANA, domekan bi urte egingo dozuz-eta. Famelixa guztiaren eta, batez be, Jontxu eta Nahiaren partez.



Zorionak, CRISTINA, txapelduna, bixar hiru urte beteko dozuz-eta. Muxu pilla bat etxekuen partez.



Zorionak, OIHANA, gaur zazpi urte egitten dozuzelako. Muxu haundi-haundi bat zure izebaren partez.



Zorionak, AITOR, astelehenian bi urte egin zenduaz-en-eta. Muxu haundi ba famelixaren partez.



Ongi etorri, DORLETA, otsaillaren 21ian gure artera etorri ziñalako. Patxo haundi bat famelixaren eta, batez be, Elenen partez.



Zorionak, bikote!!! Martxuaren 1ian BEÑATEk eta atzo MAIALENek 1+1+1+1+1+1. A ze urte pilla!!! Muxu potolo bana!



Zorionak, AINHIZE eta IRATI, bixar 13 urte egingo dozuzelako. Muxu haundi bat etxekuen partez.



Zorionak, JOKIN, martitzenian bederlatzi urte egingo dozuz-eta. Etxekuen partez.

jaiotakoak

- Iñaki Areitioaurtena Irueta. 2013-II-22.
- Iker Blasco Vinacua. 2013-II-26.

hildakoak

- Fco. Javier Mandiola Blasco. 61 urte. 2013-II-5.
- Carmen Ojanguren Aierbe. 94 urte. 2013-II-28.
- Jose Manuel García González. 69 urte. 2013-II-28.
- Eli Garitagoitia Zabala. 77 urte. 2013-III-2.

zinea Coliseoan

(1 ARETOAN)

8an: 22.30
9an: 19.45, 22.30
10ean: 20.00
11n: 20.30

"Hitchcock"

Zuzendaria: Sacha Gervasi



(2 ARETOAN)

8an: 22.30
9an: 19.45, 22.30
10ean: 20.00
11n: 20.30

"Las ventajas de ser..."

Zuzendaria: Stephen Citbosky



(ANTZOKIAN)

8an: 22.30
9an: 19.45, 22.30
11n: 20.30

"Oz. Un mundo de fantasía" 3D

Zuzendaria: Sam Raimi



BARIXAKUA 8

EMAKUMEAREN EGUNA

11.00/13.00. Karpa moreak.

19.45. Udalaren hitzarmena irakurtzea eta Flashmob-a. Untzagan.

20.00. Elkarretaratzea: "Andra, zure iritziak balio du, parte hartu!". Untzagan.

INDIANOKUA

16.30. Makro lehiaketa. Indianokua gaztelekuan.

HITZALDIA

19.00. Igor Goñi ekonomilariaren hitzaldia: "Eibarko historia ekonomikoa eta armagintza". Portalean.

INAUGURAZIOA ETA SARIA

19.00. Martxoak 8-aren inguruko artelanen erakusketa inauguratzeko ekitaldia eta irabazleari saria ematea. Topalekuan.

ZAPATUA 9

GELTOKI MARKET

10.30/15.30. Bigarren eskuko azoka, artisautza, Lambretta kontzentrazioa, janari-bilketa, futbolen txapelketa, ludoteka, bertsolariak, break dance, photocall-a... Estaziñean.

ANTZERKI JARDUNALDIAK

17.00. "Mis primeras Cuatro Estaciones", Ara Malikian-ekin. Coliseoan.

20.30. "Locas" (Teatro A Cuestas). Hezkuntza Esparruan.

KALEETAN KANTUZ

19.30. Kaleetan Kantuz-ekoen irteera. Untzagatik hasita.

DOMEKA 10

INDIANOKUA

17.00. Wii txapelketa. Indianokua gaztelekuan.

ANTZERKI JARDUNALDIAK

20.30. "Lingua Nabajorum" (Tartean, Ez Dok Hiru Biko Teatro, Bizkaia). Coliseoan.

ASTELEHENA 11

IKASTEN

10.00. "Mirando al cielo" (astronomia). Beheko Tokian.

MARTITZENA 12

IKASTEN

10.00. "Periodo clásico" hitzaldia, Marina Lertxundiren eskutik. Armeria Eskolan.

IKASTEN

16.00. Sendabelarren Foroa: Hainbat landare eta pomaden ikerketa. Portalean.

IRAKURKETA KLUBA

19.00. Gaztelerazko irakurketa kluba: "El juego de las sillas" liburuari buruzko solasaldia, Uxue Alberdi idazlearekin. Juan San Martin Liburutegian.

ANTZERKI JARDUNALDIAK

20.30. "Calla y come" (Compañía La Cocina, Bizkaia). Hezkuntza Esparruan.

EGUAZTENA 13

IKASTEN

11.00. Kafe-tertua: Aseguruak (2. parte). Untzaga jubilatutxan.

INDIANOKUA

18.00. Sukaldaritza. Indianokua gaztelekuan.

HITZALDIA

19.00. "Hipertensión arterial: consejos dietéticos y uso de medicamentos", Luis Fernández Lázaro Eibarko Medikuntza Zentruko kardiologoa eta Euskal Herriko Kardiologia Elkartearen presidentearen eskutik. Portalean.

ANTZERKI JARDUNALDIAK

20.30. "Para qué recordar" (Txaika Teatro, Anima Eskola, Bizkaia). Coliseoan.

EGUENA 14

IKASTEN

10.00. "Industria-arkeologia", Ezequiel Collantesen eskutik. Armeria Eskolan.

LANBIDE HEZIKETA AZOKA

10.00. Inaugurazio ekitaldia.

10.30. Mahai-ingurua: "Lanbide Heziketaren eta enpleguaren arteko harremana".

16.00. Tailerra: marka pertsonala (Grupo Bentas).

17.00. Hltzaldia: "Lanbide heziketaren sistema integratua" (Gloria González, Lanbide).

17.30. Tailerra: "Zer irudi ematen ari naiz interneten?" (Miguel Fernández, Mondragon Unibertsitatea). Armeria Eskolako patioan.

NEGOBIDE

13.45. NegoBide topaketa: negozioak aurrera ateratzeko laguntza berriak identifikatzea. Portalean.

IKASTEN

18.00. Joskintza-tailerra. Portalean.

URTEKO BATZARRA

19.30. ...eta kitto! Euskara Elkartearen Urteko Batzarra. ...eta kitto!-ren egoitzan (Urkizu, 11 solairuartea).

KONTZERTUA

19.30. "Bizitarako Pentagramak", Juan Bautista Gisasola Musika Eskolako taldearen kontzertua: Xapop, Face to Eye, gitarra bikotea, gitarra taldea, Eibarko Koru Gaztea. Proega La Salleko GKE-ak antolatuta. Coliseoan.

BERTSO-SAIOA

20.00. Tabernako bertso-saioa, Miren Amuriza eta Beñat Ugartetxea bertsolariarekin. Korrika Kulturalaren barruan. Kultun.

HOROSKOPOA

ARIES

Gauza bereziak gertatuko zaizkizu hurrengo egunetan, zoragarriak denak. Espero ez bazenu ere, dena alde duzu.

TAURUS

Saiazen bazara, aurrean dituzun helburu guztiak bete ditzakezu epe ertainean. Fedea izan egiten duzun horretan.

GEMINI

Besteek esaten dizuten gauzei jaramon gehiago egingo bazenie, ez zinateke hainbeste arazotan sartuko. Adi egon!

CANCER

Gauza bat galtzean edo galtzeko zorian zaudenean, orduan baloratzen duzu gauza hori. Lasai, berreskuragarria da.

LEO

Zure laguntza berebizikoa da behar duen horrentzat. Zure alde eskuzabal erakutsi duzu eta nola gainera! Eskertuko dizu.

VIRGO

Erdipurdi ibiliko zara. Ez zaude unerik onenean; beraz, zure gorputza hobeto zaindu beharko zenuke, gaixotu aurretik.

LIBRA

Zaintzuk gara? Nora goaz? Zer egiten dugu hemen? Galdera asko dira, ezta? Erantzunak aurkitzea ez da erraza.

SCORPIUS

Pozez zoratzen zabilta eta arrazoi guztiarekin. Azkenean lortu duzu nahi zenuena: orain hori eusten ahalegindu.

SAGITTARIUS

Momentu nahasiak zuretzat: asko eta ondo pentsatzeko sasoia duzu aurrean. Ea buruan duzun hori argitzen duzun.

CAPRICORNIUS

Ateak jotzen ez badituzu, ez zaizu bat ere zabalduko. Ez pentsa zure bila etorriko direnik: zeuk saiatu behar duzu.

AQUARIUS

Lan kontuetan oso fin ez bazabiltza ere, zorionerako arrazoiak izango dituzu beste alderdi batetik. Baztertu lana.

PISCIS

Ezin zara hain manipulagarria izan! Egizu nahi duzun hori, ez besteek esaten dutena. Zeu zara zeure buruaren jabea.

Ostirala	Larunbata	Igandea	Astelehena	Asteartea

erakusketak

✓ Martxoaren 15era arte

XABIER ISASTI. Akuarela, pirograbatu eta egur-tailu erakusketa.
Untzaga Jubilatatu Etxean.

✓ Martxoaren 24ra arte

ANA RIAÑO. "De realidades y ficciones".
Portalean.
EMAKUMEEN ARTELANAK.
Topalekuan.

✓ Martxoaren 31ra arte

JUAN ANTONIO PALACIOS. Argazkiak.
Portalea tabernan.
JUAN IGNACIO AIZPURUA. Argazkiak.
El Ambigú tabernan.
FAFIBA. Balear Uharteetako argazkilari elkartearen federazioaren argazkiak.
Klub Deportiboan.

lehiaketak

✓ Martxoaren 12ra arte

XVI. EGUEN ZURI ARGAZKI LEHIAKETA. Lanak aurkeztea eta informazioa: Arrate Kultur Elkarte (arratekultu@gmail.com edo 943-202299).

✓ Martxoaren 28ra arte

PORTADA LEHIAKETA. Gaia: XXX. Dia Das Letras Galegas Casa C. de Galicia "As Burgas", Roberto Vidal Bolañoren omenez. Saria: 100 euro. Lanak aurkeztea eta informazioa: casaasburgas@euskaltel.net edo 943-206737

farmaziak

✓ barixakua 8

EGUNEZ **Lekunberri** (Isasi, 31)
GAUEZ **Lekunberri** (Isasi, 31)

✓ zapatua 9

EGUNEZ **Iraundegi** (Sostoatarren, 10)
GAUEZ **Iraundegi** (Sostoatarren, 10)

✓ domeka 10

EGUNEZ **Elorza** (J. Gisasola, 18)
GAUEZ **Elorza** (J. Gisasola, 18)

✓ astelehena 11

EGUNEZ **Las Heras Larramendi** (Calbetón, 19)
GAUEZ **Aranburu** (Gipuzkoa etor., 46)

✓ martitzena 12

EGUNEZ **Mendinueta** (Urkizu, 6)
GAUEZ **Alberdi** (Zubiaurre, 9)

✓ eguaztena 13

EGUNEZ **Goikoetxea** (Ibarkurutze, 7)
GAUEZ **Cortina** (Zubiaurre, 29)

✓ eguena 14

EGUNEZ **Zulueta** (S. Agustin, 5)
GAUEZ **Ugarte** (Sta. Zezilia, z/g)

✓ barixakua 15

EGUNEZ **Mandiola** (S. Agustin, 3)
GAUEZ **Ibarrondo** (Zeharkalea, 2)

telefono jakingarriak

SOS deiak.....	112
Pegora.....	010
Udaletxea.....	943 70 84 00
Portalea.....	943 70 84 39
Udaltzaingoa.....	943 20 15 25
Mankomunitatea	943 70 07 99
Debegesa.....	943 82 01 10
KIUB.....	943 20 38 43
Epaitegia.....	943 03 34 00
Iberdrola.....	901 20 20 20
Naturgas.....	902 12 34 56
DYA Larrialdiak ..	943 46 46 22
Gurutze Gorria...	943 22 22 22
Mendaro osp.....	943 03 28 00
Anbulategia.....	943 03 25 00
Torrekoa.....	943 03 26 50
Errepideak.....	902 11 20 88
Ertzaintza.....	943 53 17 00
Eusko Tren.....	902 54 32 10
Pesa.....	902 10 12 10
Taxiak.....	943 20 30 71
.....	943 20 13 25
Alkohol.Anon.....	629 14 18 74
Al-Anon/Alateen ..	650 26 59 63

autobus ordutegiak

EIBAR-DONOSTIA. Lanegunak: 07.00etatik 9.30etara ordu erdiro eta 09.30etatik 20.30etara ordu. Zapatua: 07.00 eta 08.30etatik 20.30etara ordu. Jaiegunak: 08.30, 10.30, 12.30, 13.30, 15.30, 17.30, 19.30 eta 20.35. **DONOSTIA-EIBAR.** Lanegunak: 07.00, 07.30etatik 15.30etara ordu, 15.00, 15.30etatik 20.30etara ordu eta 21.00. Zapatua: 07.00, 08.30etatik 20.30etara ordu, 21.00 eta 22.00. Jaiegunak: 08.30etatik 18.30etara bi ordu, 19.30, 21.00 eta 22.00.

EIBAR-BILBO. Lanegun eta zapatua: 06.40-etatik 20.40etara ordu. Jaiegunak: 07.40-etatik 21.40etara ordu. **BILBO-EIBAR.** Lanegunak: 06.40etatik 21.40etara ordu erdiro. Zapatua eta jaiegunak: 07.40etatik 21.40etara ordu erdiro.

EIBAR-GASTEIZ. Lanegunak: 07.00etatik 21.00etara ordu eta 06.15, 10.15, 14.15 eta 18.15. Jaiegunak: 10.30, 14.30, 18.30 eta 20.30.

GASTEIZ-EIBAR. Lanegunak: 06.30etatik 20.30etara ordu eta 12.00, 16.00 eta 20.00. Jaiegunak: 10.30, 14.30, 18.30 eta 20.30.

EIBAR-IRUÑEA. Lanegunak: 07.45, 13.30 eta 14.45. Jaiegunak: 07.45 eta 18.00. **IRUÑEA-EIBAR.** Lanegunak: 11.00, 17.00 eta 18.00. Jaiegunak: 11.00 eta 21.00.

EIBAR-ARRATE. Zapatua: 14.00. Jaiegunak: 09.00, 10.00, 11.00, 13.00 eta 18.00. **ARRATE-EIBAR.** Jaisteko: ordu erdi geroago.

EIBAR-ELGETA. Lanegunak: 06.40, 08.40, 13.40, 15.40, 16.40, 18.40 eta 20.40. Zapatua eta jaiegunak: 08.40, 13.40, 15.40 eta 20.40. **ELGETA-EIBAR.** Jaisteko: 20 minutu geroago.

EIBAR-MENDARO. Lanegunak: 06.10 eta 07.05etatik 21.55etara 20 minutu eta 22.20. Zapatua: 07.00etatik 22.00etara ordu eta 23.10. Jaiegunak: 08.00etatik 21.00etara ordu eta 22.15. **MENDARO-EIBAR.** Lanegunak: 06.15, 06.50-etatik 21.10etara 20 minutu eta 22.05. Zapatua: 06.45etatik 20.45etara ordu, 22.05 eta 22.45. Jaiegunak: 07.45etatik 20.45etara eta 22.05.

EIBAR-LOIU. Egunero: 05.50, 09.50, 13.50, 17.50 eta 21.50. **LOIU-EIBAR.** Egunero: 07.15, 11.15, 15.15, 19.15 eta 23.15.

tren ordutegiak

EIBAR-DONOSTIA. Egunero: 08.15etatik 22.15etara ordu. Lanegunak: baita 06.15 eta 07.15.

DONOSTIA-EIBAR. Egunero: 07.47etatik 20.47etara ordu. Lanegunak: baita 05.47 eta 06.47.

EIBAR-BILBO. Egunero: 08.15etatik 22.15etara ordu, 10.36 eta 21.36. Lanegunak: baita 06.13 eta 07.13. **BILBO-EIBAR.** Egunero: 06.57etatik 20.57etara ordu, 09.34 eta 20.34. Lanegunak: baita 05.57.

	2		3	1			
		6	2			1	4
	5				9		2
		4					1
6							5
5	9					2	
	4		7				9
7		1			2	4	
				6	4		5

SUDOKUA

1	7	9	6	5	4	2	8	3
6	5	4	3	2	8	1	7	9
2	3	8	7	1	9	4	5	6
8	1	3	9	7	2	5	6	4
5	6	2	1	4	3	7	9	8
9	4	7	8	6	5	3	2	1
4	2	1	5	9	6	8	3	7
3	9	5	4	8	7	6	1	2
7	8	6	2	3	1	9	4	5

AURREKOAREN EMAITZA

1. Etxebizitza

1.1. Salgai

- Pisia salgai J.A. Mogel kalean. 3 logela, balkoi-egongela eta sukaldia. Ganbara handia. Dena kanpora begira. Bizitzera sartzeko moduan. Tel. 681-223138.
- Babes Ofizialeko pisua salgai Soraluzen. 3 logela, trasteroa eta garajea. 80 m². Tel. 637-321970 eta 635-728510.
- Babes Ofizialeko pisua salgai Barakaldo kalean. 2 logela eta garajea trasteroarekin. Tel. 660-736526.

1.2. Errentan

- Pisia errentan behar da Eibarren. Tel. 634-007292.
- Pisia hartuko nuke alokairuan Eibarren. 2 logelarekin. Tel. 657-125654.
- Pisia eguzkitsu eta zabala alokagai Eibarren, bariantetik gertu. 3 logela, 2 bainu, sukalde-jangela, egongela eta terraza handia. Sartzeko moduan. Bista zoragarriak. Tel. 645-728317.
- Logela alokagai konpartitutako pisuan. Amañaki dorreetan. Tel. 650-916914.
- Estreinatzeko pisua alokagai Bidebarrieta kalean. Guztiz berrituta eta jantzi. 2 logela eta egongela handia. Tel. 652-764566.
- Eibarko bikote gazteak pisua hartuko luke errentan Eibarren. Tel. 619-935095.
- Pisia hartuko nuke alokairuan Eibarko erdialdean. Tel. 618-354218.

3. Lokalak

3.2. Errentan

- Garaje itxia alokagai Asua-Errekan. 2 zenbakia, 1 atea. Tel. 629-886258.
- Garaje zabala, marra artekoa, alokagai Ego-Gain 12an. Tel. 680-824100.
- Garaje itxia alokagai Legarre/Arrate-Bide inguruan. Behean eta maniobratzeko erraza. Tel. 943-201294 eta 645-728317.

Atal honetako iragarkiak doan dira, etxeen, lokalen, autoen eta irakaskuntzako eskaintzen kasuan izan ezik. Azken hauetako PREZIOAK honakoak dira:
Etxeak, lokalak eta garajeak: alokatu, 10 euro; saldu, 15 euro.
Autoak eta irakaskuntzako eskaintzak: 10 euro. Doako iragarkietan, 12 hitz onartuko dira gehienez. **Iragarkiak ipintzeko: 943-200918.**

1. ETXEBIZITZA

- 1.1. Salgai
- 1.2. Errentan
- 1.3. Konpartitzeko
- 1.4. Etxe trukaketa

2. MOTORRA

- 2.1. Salgai

3. LOKALAK

- 3.1. Salgai
- 3.2. Errentan

4. Lana

4.1. Lan bila

- Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 634-007292.
- Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 688-341238.
- Emakumea eskaintzen da interna moduan. Erizaintzan diplomatua. Tel. 699-569998.
- Gizona eskaintzen da nagusiak ospitalean zein etxean zaintzeko, eta baserriak garbitzeko. Tel. 688-812845.
- Mutila eskaintzen da garbiketarako egiteko, eraikuntzan jarduteko eta mudantzetan laguntzeko. Tel. 660-213652.
- Mutila eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 686-077316.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko asteburuetan. Tel. 646-821678.
- Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel. 665-752585.
- Emakume euskalduna eskaintzen da asteburuetan emakumeak zaintzeko. Tel. 659-381601.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Tel. 646-143287.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 660-279131.
- Emakumea eskaintzen da edozein lanetarako. Tel. 686-802342.
- Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko, garbiketarako egiteko eta sukalde-laguntzaile jarduteko. Orduka. Tel. 632-700803.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 632-784360.
- Neska eskaintzen da etxeko garbiketarako egiteko. Orduka. Tel. 647-155908.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Esperientzia eta erreferentziak. Tel. 625-895460. Carmen Maria.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Esperientzia eta erreferentziak. Tel. 638-835824. Oneida.

4. LANA

- 4.1. Lan bila
- 4.2. Langile bila

5. IRAKASKUNTZA

- 5.1. Eskaerak
- 5.2. Eskaintzak

6. DENETARIK

- 6.1. Salgai
- 6.2. Eman
- 6.3. Galdu/Aurkitu
- 6.4. Bestelakoak

- Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 686-052084.
- Mutila eskaintzen da kamarero jarduteko. Esperientzia. Tel. 692-332871.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Interna. Tel. 662-012834.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Arratsaldez eta asteburuetan. Tel. 638-824278.
- Neska eskaintzen da edozein lanetarako. Interna. Tel. 632-337083.
- Neska eskaintzen da edozein lanetarako. Interna. Tel. 632-054894.
- Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko, etxeko lanak egiteko eta kamarera jarduteko. Tel. 652-352419.
- Emakume euskalduna eskaintzen da etxean laguntzeko: plantxa egin, ... Tel. 661-075520.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel. 626-197219.
- Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel. 653-473375.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko, soziedade edo pegorak garbitzeko, etabar. Orduka eta asteburuetan. Tel. 631-004374.
- Emakumea eskaintzen da goizez eta asteburuetan lan egiteko. Laguntzaile titularekin. Tel. 616-607121 eta 943-207183.
- Neska euskalduna eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta pegorak garbitzeko. Tel. 617-571210.
- Neska euskalduna eskaintzen da lanerako. Ikasketak: integrazio soziala eta erizaintza laguntzailea. Tel. 646-644125.
- Emakume arduratsua eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxea garbitzeko. Esperientzia. Tel. 618-444081.
- Neska eskaintzen da garbiketarako egiteko eta nagusiak zaintzeko. Tel. 625-814727.
- Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 605-720298.
- Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 674-259376.

- Mutila eskaintzen da kamarero jarduteko, pintore moduan, sukaldari-laguntzaile eta nagusiak zaintzeko. Tel. 647-898016.
- Emakumea eskaintzen da goizez garbiketarako egiteko eta nagusiak edo umeak zaintzeko. Tel. 943-127018.
- Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel. 636-362251.
- Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel. 669-311385.
- Neska euskalduna eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Magisteritzan diplomatua atzerriko hizkuntzan. Tel. 664-558932.

4.2. Langile bila

- Kamarera euskalduna eta sukaldaria behar dira Eibarko jatetxe batean. Curriculum-a eta argazkia bidali Eibarko 46 posta-kutxatilara.
- Kamareroak behar dira Eibarko taberna batean. Euskaraz jakitea ezinbestekoa. Tel. 697-245186.
- Martxa batean dagoen negozioaren %50 salgai. Jornada osoko lana izateko aukera. Tel. 653-021169.

5. Irakaskuntza

5.1. Eskaerak

- Ingeniaritza Industrialaren egiten diharduen ikasleak karrera bera egin duen irakaslea behar du klase partikularrik hartzeko. Tel. 639-423673.

5.2. Eskaintzak

- Atzerriko hizkuntzan diplomatua LH eta DBHko klase partikularrik ematen ditu. Tel. 651-503971.
- DBH, Batxilergo, Diplomatura eta Litzentziaturako Matematikak, Estadistika eta Kontabilitatea ematen dira. Tel. 685-739709.

6. Denetarik

6.1. Salgai

- Nagusiak mugitzeko garabi eta ohe artikulatu ortopedikoak salgai. 1.800 euro. Osagarri guztiakin. Tel. 94-4232377, 675-712737 eta 943-702654.
- Mugikortasun-garabia salgai. Tel. 658-710829.
- Bigarren eskuko Miele hozkailua eta Aspes garbigailua, eta Fagor ontzi-garbigailu berria salgai. 399 eurotan hirurak. Tel. 625-700365.

6.2. Eman

- Eibar Sahara Elkarteak mahaiak eta apalategiak behar ditu. Tel. 665-704137.



@AbianAzoka



www.facebook.com/
AbianDebarrena

www.debegesa.com



Kontsultatu
egitaraua:
Hitzaldiak
jardunaldiak
...

lekua:

Armeria Eskolako patioan,
Eibar

data eta orduetia:

Marxoak 14 eta 15
Osteguna eta Ostirala

10:00-14:00
16:00-19:00

Marxoak 16
Larunbata

10:00-14:00

SARRERA IREKIA

DEBABARRENEKO I. LANBIDE HEZIKETA AZOKA

#ABIAN

Armeria Eskola // BHI-IES Uni Eibar-Ermua // BHI-IES Mutriku // Debako Arte Eskola // Debegesa // E.U.I.T.I. Eibar
IEFPS Meka GLBHI // IMH - Makina Erremintaren Institutua // PCPI Eibar // PCPI Ermua-Mallabia // TKNIKA

Antolatzailea:

Debegesa

Debabarreneko Garapen
Ekonomikoko Elkartea
Sociedad para el Desarrollo
Economico de Debarrena

Laguntzaileak:



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO



Gipuzkoako Foru Aldundia

...eta kitto!-ren
itzulpen
itzu
tzu
zerbitzua

**ERA GUZTIETAKO
TESTUAK
ITZULTZEN
DITUGU,
euskaratik
gaztelarrera,
gaztelertatik
euskarara,
eta ingelesetik
euskarara.**

- Urte askotako
ESPERIENTZIA dugu.

- Bezeroaren
beharretara
EGOKITUko gara.



elkartea@etakitto.com





bista eder

clinica dental - hortz klinika



**Irribarreak
gaztetu egiten gaitu**

**Inplante eta
Hortz-Estetikan
adituak**

**Bista Eder Hortz Klinika
Bista Eder, 19 - behea -EIBAR-
943 70 00 82 / 943 20 84 75**